



IDAZKARI NAGUSIAREN INSTRUKZIOAREN ALDAKETA, LANKIDETZA HITZARMENAK ONARTZEKO ADMINISTRAZIO ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEARI BURUZKOA

Lankidetza hitzarmenak unibertsitateko Gobernu Kontseiluaren Funtzionamendu Arautegian aurreikusita daude, II. tituluko III. kapituluan. 2023ko ekainaren 30ean, idazkari nagusiak instrukzio bat argitaratu zuen, hitzarmenak onartzeko administrazio espedienteak izapidetzeari buruzkoa.

Instrukzio horretako 5.2 artikuluan ezartzen zen organo proposatzaileak Idazkaritza Nagusira bidali behar zuela alde guztiek izenpetutako dokumentua, idazkaritzak hitzarmenen erregistroan inskriba zezan.

Sistema eraginkorragoa izan dadin, iruditu zaigu egokiagoa dela zeregin hori hitzarmena sustatzen duen organoaren gain uztea, instrukzioa berdin-berdin utzita gainerako guztian.

Esandakoagatik, eta baliaturik Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legean aipatutako eskumenak (40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 6.1. art.), hauxe erabaki dugu:

ERABAKIA

Lehenengoa. - Aldatzea idazkariak emandako instrukzioa, lankidetza hitzarmenak onartzeko administrazio espedienteak izapidetzeari buruzkoa. Zehazki, 5.2 artikulua aldatuko da eta honela geratuko da:

5.2. Organo proposatzaileak dokumentua inskribatuko du hitzarmenen datu basean eta, behar besteko aurrerapenaz, dagozkion jarraipen eta kontrol zereginak egingo ditu behar diren gaiak kudeatzeko, hala nola hitzarmenaren indarraldia, salaketa, indarraldiaren luzapenak, eduki aldaketak edo, hala dagokionean, Kontu Auzitegira bidaltzea.

Bigarrena.- Aldaketa UPV/EHUren webgunean argitaratzea.

Aitor Zurimendi Isla
Idazkari nagusia